

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak sustatu eta garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza indargabetzeari

Udalbatzak, 2016ko irailaren 7ko osoko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak sustatu eta garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza indargabetzeari. Jendaurrean egon zen bitartean, haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko erabaki bihurtu zen. Horiek horrela, argitaratu egiten da apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenaren, 70.2 artikuluan xedatutakoetarako.

“

Seigarren puntua Behin-behineko onarpena ematea, hala iritziz gero, Arraia-Maeztuko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak sustatu eta garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza indargabetzeari

Ordenantza zaharkitua da, testu eta puntu ilunekin.

Ez ditu legez betebeharreko gutxienekoak betetzen, zeren eta ez baititu adierazten zeintzuk diren dirulaguntza emateko irizpide objektiboak, ez eta haiek haztatzeak ere. Ez ditu zehazten, halaber, bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa edo hura zehazteko irizpideak.

Era berean, ez dago onar litekeen aurrekontu aplikazioa banatzeko kuantifika daitezkeen eskaerak balorazio irizpiderik.

Ez da zehazten onuradun bakoitzari eman dakioken gehieneko dirulaguntza, ez eta betekizunak betetzen dituzten eskatzaileen artean aurrekontuan esleitu daitezkeen urteko zenbatekoa banatzeko era ere.

Alegia, ez du dirulaguntzak emateko gutxieneko segurtasun juridikorik eskaintzen.

Udalak laguntzarik eman nahi badu, dagokion aurrekontu esleipena egin eta aipatutako hutsok zuzendu beharko ditu, hots, indarrean den ordenantza zuzendu, legeko gutxienekoak bete eta oinarriak argitzeko. Horretarako guztirako, balorazio irizpideak eta udal aurrekontuan urtero esleitu daitezkeen zenbatekoak betekizunak betetzen dituztenen artean banatzeko era zehaztu beharko ditu.

Iragan irailaren 2an informazio batzordearen txostena ikusita, udalbatzak hau erabaki du aho batez:

Xedapen zatia:

Erabakia:

Lehenengoa. Azalpen zatian jasotakoan oinarrituta, hasierako onarpena ematea Arraia-Maeztuko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak sustatu eta garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza (ALHAO; 145. zk.a; 2005eko abenduaren 23a) indargabetzeari. Berehala utziko zaio ordenantza hori aplikatzeari, etorkizunean udalak aplikagarri izan litezkeen beste arau batzuk onartu ala ez gorabehera.

Bigarrena. Hasierako onarpenaren erabaki hau jendaurrean jartzea udalaren iragarki taulan hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Jendaurreko aldia bukatuta eta aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, behin betiko erabakia hartu eta ordenantzaren behin betiko testua onartuko da. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko erabakia behin betiko bihurtuko da, udalbatzaren beste erabakiren baten beharrik gabe.

Aurreko ahapaldian aipatzen den behin betiko erabakia, hau da, behin betiko bihurtutako behin-behinekoa, ALHAOn argitaratuko da.

.....”

Behin betiko onarpenak administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edonola ere, egoki iritzitako beste edozein erreklamazio aurkeztu ahal izango da.

Maeztu, 2016ko azaroaren 15a

Alkate-lehendakaria

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA